



GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA
AUTOGOBERNU SAILA
Enplegu Publikoko Sailburuordetza
Enplegu Publikoko Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO
Viceconsejería de Empleo Público
Dirección de Empleo Público

Ohiko galderak

Orokorretako Lehiaketak parte hartzeko
gida praktikoa

20
25



Aurkibidea

1. Zer lehiaketa iragartzen dira?	3
2. Zein arauen bidez erregulatzen dira lehiaketa hauek?	3
3. Nola informa naiteke lehiaketa orokorreari buruz?	3
4. Lehiaketa orokor hauen berritasunak	4
5. Nire interesen kalterako izango al da lanpostu huts bihurtzen ez den, eta, ondorioz, esleitzen ez den lanpostu bat hautatzea?	4
6. Nola eskura dezaket lehiaketei buruzko informazioa?	4
7. Nola sar naiteke Intranetetik nire eskaera egitera?	5
8. Nola sar naiteke Internetetik nire eskaera egitera?	5
9. Nola sar naiteke Internetetik parte hartzen dudana lehiaketari buruzko informaziora?	6
10. Nola bideratu behar dut nire eskabidea?	6
11. Zenbateko epea daukat eskabidea egiteko?	6
12. Nortzuek parte har dezakete lehiaketa hauetan?	6
13. Nortzuek parte hartu behar dute nahitaez lehiaketa orokorretan?	7
14. Zer ondorio dauzka lehiaketan parte hartzeko betebeharra ez betetzeak edo behar adina lanpostu ez eskatzeak?	7
15. Deialdi bakoitzeko lanpostuak.	8
16. Eskala bat baino gehiagotako funtzionarioak.	8
17. Dagokion titulazioa izanez gero, eska al ditzaket nire kidego eta eskalakoak ez diren lanpostuak?	9
18. Nola eskura ditzaket lanpostuen monografiak?	9
19. Nola eta noiz ezarri behar dut eskatu nahi ditudan lanpostuen lehentasun-hurrenkera?	9
20. Zer merezimendu baloratuko dira?	9
21. Zer baldintza bete behar dituzte merezimenduek, baloratu ahal izateko?	9
22. Nola baloratuko dira merezimenduak?	10
23. Zer merezimendu alegatu behar dira?	10
24. Zer merezimendu egiaztatu behar ditut, eta nola?	10
25. Zer esan nahi du lehiaketan atzera egiteak?	11
26. Erresulta-faserik ba al dago?	11



1. Zer lehiaketa iragartzen dira?

Hiru lehiaketa orokor iragartzen dira:

- Administrarien Eskalako, Administrari Laguntzaileen Eskalako eta Laguntzako Langileen Talde Profesionaleko lanpostuetarako.
- Laguntzaile Teknikoen Kidegoko lanpostuetarako:
 - Kudeaketa-informatikako Eskala
 - Arrantzako eskala
 - Hazien Eskala
 - Laborategiko eta Osasun- eta Ingurumen-ikuskaritzako Eskala
 - Obren eta Instalazioen Delineazioko Eskala
- III-B, III-C, IV-A, IV-B eta IV-C berariazko osagarria duten eta kidego hauetakoak diren lanpostuetarako:
 - Administrazio Goi-mailako Kidegoa
 - Administrazio-kudeaketako Kidegoa
 - Fakultatiboen Goi-mailako Kidegoa
 - Kidego Teknikoa

2. Zein arauen bidez erregulatzen dira lehiaketa hauek?

Alde batetik, lanpostuak betetzeko indarrean dagoen araudiak agintzen du, eta, bestetik, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren 2025eko irailaren 15eko aginduek, non ezartzen baitira parte hartzeko baldintzak, lanpostuak, prozedura, merezimenduen baremoa eta ebazpena, eta halaber balorazio-batzordearen izendapena eta eskaintako dotazioen deialdia.

3. Nola informa naiteke lehiaketa orokorreari buruz?

Oinarriak hartzen dira lehiaketak erregulatuko dituzten arautzat. Irakurri egin behar dira.

Helbide hauetan dago eskuragarri lehiaketei buruzko informazioa:

- Internet: www.euskadi.eus/concurso
- Intranet: Jakina/Langilearen ataria

Leku horietan aurkituko dituzu oinarriak eta lehiaketetan ematen diren urratsei buruzko informazio guztia: onartuak, merezimenduen balorazioa, errekerimenduak, esleipena eta lanpostu-jabetzeak.



4. Lehiaketa orokor hauen berritasunak

Egintza bakar batean esleituko dira, deialdia egiten den unean hutsik dauden lanpostu hutsak ez ezik, esleipena egin arte sortzen diren lanpostu hutsak, bai eta lehiaketako esleipenetatik sortzen diren lanpostu hutsak ere. Hasiera batean hutsik ez dagoen lanpostu bat hautatu ahal izango duzu.

Beraz, parte hartzeko eskabideko lanpostuen zerrendan egongo dira bai une horretan hutsik dauden lanpostuak, bai hutsik ez daudenak (hutsik gera daitezkeela aurreikusita).

Lanpostu bat esleitu zaien pertsonak esleitutako lanpostu hori betetzen hasteko betebeharra daukate. Behin betiko destinoei ezin zaie uko egin, eta ezin da zerbitzu-eginkizunetan geratu betetzen den lanpostuan.

Parte hartzera behartuta dauden karrerako funtzionarioei, lehiaketan parte hartzen ez badute edo, parte hartu arren, lanposturik esleitzen ez bazaie, ofizioz eta behin betiko esleituko zaie lanpostu bat.

5. Nire interesen kalterako izango al da lanpostu huts bihurtzen ez den, eta, ondorioz, esleitzen ez den lanpostu bat hautatzea?

Ez.

Zure lehentasunen arabera ordenatu behar dituzu lanpostuak. Gero, lanpostuak hutsik geratzen ez badira, ez dira lehiaketan esleitzen, baina ez da murriztuko aukeratu duzun hurrengo lanpostua lortzeko aukera.

Esleipen-sistemak zure aukerarik onena emango dizu, zure merezimenduen balorazioaren arabera.

6. Nola eskura dezaket lehiaketei buruzko informazioa?

Jardunean dauden langileentzat:

- **Jakina:** Nabarmenduen gunean egongo da Lehiaketak atalerako sarbidea.
- Langilearen ataria (**EIZU**), lehiaketako “Betetzea eta Hautatzea” atala.

Jardunean ez dauden langileentzat:

- **Internet** (www.euskadi.eus/concurso). Jardunean ez dauden langile interesdunek lehiaketan parte hartzeko eskaerak egin ahal izango dituzte, eta:



Lehiaketak aurrera egin ahala, hauek kontsultatu ahal izango dira:

- Deialdien oinarriak
- Eska daitezkeen lanpostuak
- Lehiaketaren izapidetze-egoera.
- Onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda
- Lanposturako onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda
- Merezimenduen balorazioa, lanpostuko
- Lanpostuen esleipena
- Lehiaketan esleitu ez diren lanpostuen zerrenda

Gainera, **honako hauek egin ahal izango dira aplikaziotik:**

- Eskabidea bete eta aurkeztu.
- Egindako eskabideak kontsultatu
- Merezimenduen balorazioa kontsultatu
- Enplegu Publikoko zuzendariaren ebazpenak eskuratu, eta, hala badagokio, horien aurkako erreklamazioak egin.
- Esleipenen zerrenda kontsultatu
- Oro har, parte-hartzaileentzat garrantzitsua den informazio oro eskuratu.

Lehiaketan parte hartzen dutenek, **beren eskabidean helbide elektroniko bat agertzen bada, mezu bat jasoko dute informazio berria argitaratzen den bakoitzean, horren berri izateko.**

7. Nola sar naiteke Intranetetik nire eskaera egitera?

Jardunean bazaude, Jakina/Langilearen ataria-tik egin ahal izango duzu eskaera, **XL-Net-en bidez identifikatuta.**

8. Nola sar naiteke Internetetik nire eskaera egitera?

Zerbitzu aktiboan ez bazaude, Internet bidez eskaera egiteko (www.euskadi.eus/concurso), **PIN bat eskatu beharko diozu** Enplegu Publikoaren Zuzendaritzari.

PIN hori lortzeko, mezu bat bidali beharko duzu, zure izen-abizen eta IFZrekin eta helbide elektroniko batekin (helbide horretara bidaliko zaizu PINa).

concursosAG@euskadi.eus atarian eskatu ahal izango duzu, Gaian hau jarrita: **Lehiaketarako PINa:**



9. Nola sar naiteke Internetetik parte hartzen dudana lehiaketari buruzko informaziora?

Lehiaketari buruzko informazioa Internet bidez eskuratzeko, beste PIN baten bidez identifikatu behar da.

PINa eskabidean jarritako helbide elektronikora bidaltzen zaie automatikoki lehiaketan parte hartzen dutenei, gehienez ere astebeteko epean, "Behin-behineko onartuak, postuaren arabera" izeneko txostena argitaratzen denetik aurrera.

10. Nola bideratu behar dut nire eskabidea?

Eskabideak Jakinaren eskuragarri dagoen aplikazioaren bidez izapidetzen dira (Jakina/Lehiaketa, Langilearen ataria/Betetzea eta Hautatzea/Lehiaketa), edo, bestela, Internetetik sar daiteke.

Eskabidea hartu izanaren agiria inprimatu ahal duzu, eta han alegatutako datu guztiak agertuko dira, bai eta eskatutako lanpostuak, hurrenkera eta eskabidearen egoera ere.

OHAR GARRANTZITSUA: "ITXITA" egoeran dauden eskabideak bakarrik onartuko dira. Gainerakoak burutu gabekotzat joko dira (Izapidetzen edo Baliogabetuta egoeran daudenak).

Izena emateko prozesuan gorabehera teknikoren bat gertatuz gero, CAUra jo ahal izango dute, honako bide hauek erabiliz:

- Barneko telefonoa: 440
- Kanpoko telefonoa: 945 01 68 38

11. Zenbateko epea daukat eskabidea egiteko?

2025eko irailaren 30etik 2025eko urriaren 27ko 14:00etara.

12. Nortzuek parte har dezakete lehiaketa hauetan?

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko karrerako funtzionarioek, baldin eta oinarri hauetan eta lanpostu-zerrendan ezarritako betekizun orokorrak betetzen badituzte; lanpostu-zerrendan jasotzen dira, halaber, iragarritako lanpostuen betekizun espezifikoak.

Beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta langile horiek betetzeko moduko lanpostuak badira.



Bi kasuetan, ezingo dute lehiaketetan parte hartu:

- a. Aurreko bi urteetan lehiaketa bidez lanpostu bat jabetzan hartu duten funtzionarioek.
- b. Hautaketa-prozesu bat gainditzeagatik edo funtzionario bihurtzeko prozesu baten ondorioz sartu berri diren funtzionarioek, baldin eta ez badira bi urte igaro dagokion prozesuan lanpostuaz jabetu zirenetik.
- c. Eginkizun-gabetze irmoa ezarrita duten funtzionarioek ezin izango dute parte hartu, egoera horrek dirauen bitartean.
- d. Norberaren kontuotarako edo familia elkartzeko borondatezko eszedentzian dauden langileek ezin izango dute parte hartu, ez badute bete eszedentzian egon beharreko gutxieneko denbora.

Bi urteko epea bete beharko da, lehiaketa bidez lortutako azken lanpostuaz jabetzen denetik edo funtzionario izateko hautaketa-prozesua gainditu denetik, edozein dela ere haren jatorrizko administrazioa, eta edozein dela ere parte hartzeko baliatu dituen kidegoa eta eskala. Funtzionarioak lanpostuaren behin betiko adskripzioa galdu badu, ez du aurrez aipatutako denbora-muga hori bete beharrik izango.

13. Nortzuek parte hartu behar dute nahitaez lehiaketa orokorretan?

Nahitaez parte hartu beharko dute egoera hauetakoren batean dauden karrerako funtzionarioek:

- Behin-behineko adskripzioa.
- Destinoaren zain, baldin eta haien destinoko lurralde historikoan lanpostuak iragartzen badira.
- Nahitaezko eszedentzian eta aldi baterako nahitaezko eszedentzian.

Betebehar hori eraginkorra izango da, baldin eta lehiaketa orokorretan iragartzen diren lanpostuak funtzionarioaren kidegora, eskalara edo titulazio-eskakizunik gabeko talde profesionalera egokitzen badira. A taldeko karrerako funtzionarioak ez dira behartuta egongo lehiaketa orokorrean parte hartzera, baldin eta gradu pertsonal finkatua 27 edo handiagoa badute.

14. Zer ondorio dauzka lehiaketan parte hartzeko betebeharra ez betetzeak edo behar adina lanpostu ez eskatzeak?

Parte hartzera behartuta dauden karrerako funtzionarioei, lehiaketan parte hartzen ez badute edo, parte hartu arren, lanposturik esleitzen ez bazaie, ofizioz eta behin betiko esleituko zaie lanpostu bat, hogeita laugarren oinarri orokorrean ezarritako irizpideen arabera.



15. Deialdi bakoitzeko lanpostuak.

Lehiaketa orokor bakoitzean, egintza bakarrean esleitu ahal izango dira:

- **Dauden lanpostu hutsak**
- **Dagokion lehiaketako esleipen-prozesuan hutsik geratzen diren lanpostuak.** Hau da, prozesu horretan esleipena lortzen duten pertsonak titular diren lanpostuak prozesu horretan esleiri daitezkeen plazen poltsan sartuko dira.

Kontuan izan behar da lanpostu hutsak edo hutsik geratzen direnak bakarrik esleitu ahal izango direla, betiere LPZn amortizatu/iraungi/lan-kontratudun bihurtu gisa jasota ez badaude edo horien amortizazioa edo funtsezko aldaketa izapidetzen ari ez bada.

Lanpostuak esleitu aurretik, Enplegu Publikoko zuzendariaren ebazpen bidez honako hauek argitaratuko dira:

- Lehiaketan sartuko diren lanpostu hutsen zerrenda, eta
- Lehiaketako esleipenengatik hutsik gera daitezkeen eta amortizazio-espediente batean edo funtsezko aldaketa batean sartuta egoteagatik **esleituko ez diren** lanpostuen zerrenda.

16. Eskala bat baino gehiagotako funtzionarioak.

Lehiaketa orokorretako batean eskala bat baino gehiagotakoak diren karrerako funtzionarioek eskabide bakarra beteko dute, eta, hor, dagokien edozein eskalatako lanpostuak hautatu ahal izango dituzte, lehentasunen arabera.

Pertsona horiek eskatu duten lanpostu bakoitzerako adierazi beharko dute zein eskalatan nahi duten hura esleitzea.

Eskala bat baino gehiagora irekita dauden lanpostuak behin bakarrik eska daitezke. Horrenbestez, eskatzaileek **aukeratu egin behar dute zein eskalatan** nahi duten esleitzea lanpostu bakoitza.



17. Dagokion titulazioa izanez gero, eska al ditzaket nire kidego eta eskalakoak ez diren lanpostuak?

Ez.

Salbuespen hori zerbitzu-eginkizunen esparruan baino ezin da egin, halaxe jasota baitago indarrean dagoen lan-baldintzen akordioan.

18. Nola eskura ditzaket lanpostuen monografiak?

Langilearen Ataritik lor daitezke lanpostu guztien monografiak.

19. Nola eta noiz ezarri behar dut eskatu nahi ditudan lanpostuen lehentasun-hurrenkera?

Eskabidea egiten duzunean. Hautatzen dituzun lanpostuen zerrendako hurrenkerak markatzen du lehentasunaren irizpidea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan ezingo da aldaketarik egin, oinarri orokorrek hala ezartzen dute eta.

20. Zer merezimendu baloratuko dira?

Iragarritako lehiaketetan merezimendu hauek baloratzen dira: lan-esperientzia, titulazioak, hobekuntza-ikastaroak, euskararen ezagutza, gradu pertsonal finkatua, antzintasuna eta hizkuntzen ezagutza.

21. Zer baldintza bete behar dituzte merezimenduek, baloratu ahal izateko?

Oinarri espezifikotan jasotako baremoen ataletako bakoitzean, atal bakoitzari dagokion balorazioa ez ezik, baloratu ahal izateko bete behar diren baldintzak eta inguruabarrak ere ezartzen dira.



22. Nola baloratuko dira merezimenduak?

Oinarri espezifikoetan argitaratzen diren baremoetan jasotako puntuazioaren arabera baloratuko dira merezimenduak.

Titulazioen eta hobekuntza-ikastaroen kasuan, horietako bakoitzaren balorazio zehatza zehazteko, bi irizpide hartuko dira kontuan: lanpostuarekiko lotura zenbatekoa den eta merezimenduaren balio formala.

- Lanpostuarekiko lotura: baloratu beharreko merezimenduaren edukiaren eta lortu nahi den lanpostuak dituen eginkizunen artean loturaren bat dagoenean baloratuko dira merezimenduak. Lotura egongo da baldin eta egiaztatu den merezimenduaren eta lortu nahi den lanpostuaren jakintza-arlo eta -esparruen artean harremana badago. Ez dira baloratuko lortu nahi den lanpostuarekin loturarik ez duten merezimenduak.
- Merezimenduaren balio formala. Hauek dira merezimendu baten balio formala edo garrantzia neurtzeko faktoreak:
 - a. Titulua bada: graduondokoen kreditu kopurua edo ordu kopurua.
 - b. Ikastaroa bada: ikastetxea eta ebaluazioa.

Bi irizpide horiek (lotura eta balio formala) ezartzen bazaizkie aurreko apartatuko merezimenduei, honako koefiziente hau aplikatuko da merezimendu jakin bat baloratzean, dagokion baremoaren arabera: Handia (1), Tartekoa (0,75), Txikia (0,25) edo ezin da baloratu (0).

Lehiaketa bakoitzaren oinarri espezifikoetan zehaztuko diren baremoetan kategoria bakoitzari esleitutako gehieneko balioarekin biderkatuko da koefizientea.

23. Zer merezimendu alegatu behar dira?

Alegatutzat joko dira Langileen erregistroan jasotako merezimendu guztiak, zeinak eskabidean ikusi ahal izango baitituzte parte-hartzaileek. Lehiaketa bakoitzean baloratu daitezkeen merezimenduak baino ez dira aurkezten. Ordu-kopuruagatik baloratzen ez diren ikastaroak, ez dira aurkezten eta ez dira alegatu behar.

Parte-hartzeko eskabidean espresuki alegatu beharko dira Langileen erregistroan jaso gabe dauden merezimenduak eta baloratuak izan daitezkenak.

24. Zer merezimendu egiaztatu behar dituz, eta nola?

Langileen erregistroan jasota ez dauden eta oinarrietan ezarritako epean eskabidean alegatu diren merezimendu guztiak agiri bidez egiaztatuko dira.



Horretarako, Enplegu Publikoko Zuzendaritzari aurkeztu behar zaizkio egiaztagiriak, kopian «lehiaketa» hitza adierazita.

Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko dira egiaztagiri horiek. Agiriren bat beste hizkuntza batean idatzita badago, haren zinpeko itzulpena erantsi beharko da.

Aurkeztutako dokumentazioak egiaztapen-koderik ez badu, Enplegu Publikoaren Zuzendaritzak alegatutako merezimenduak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, kontsulta egingo die Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako erregistroei, administrazio publikoen datu-bitartekaritzarako plataformari edo ziurtagiriak ematen dituen organismoari (kasuaren arabera dagokionari).

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta jasota badago eskatzailea kontsulta horren kontra dagoela (arrazoiak azalduta) eta tratamendu-jardueraren ardura daukan organoak kontrakotasun hori aintzat hartzen badu.

Egiaztapena ezin bada egin, interesdunari dei egingo zaio jatorrizko dokumentazioa aurkez dezan.

25. Zer esan nahi du lehiaketan atzera egiteak?

Lehiaketan atzera egiteak lehiaketan parte hartzeari uko egitea esan nahi du. Atzera egiteak aipatzen duzun eskabide osoari eragiten dio; beraz, ezin duzu atzera egin eskatutako plazaren batean bakarrik.

Lehiaketan parte hartzera behartuta ez daudenek bakarrik egin dezakete atzera.

Prozesuaren edozein unetan egin daiteke atzeran, lanpostua behin betiko esleitu aurretik; horregatik, atzera egiteko epea plazen behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epearekin batera amaituko da.

26. Erresulta-faserik ba al dago?

Ez.

Esleipen guztiak (bai hasierako lanpostu hutsei dagozkienak, bai erresultei dagozkienak) egintza bakar batean egingo dira.